

# ALDAKETA ZORAGARRI BAT!

Bazen behin Yasmine izeneko neskatxa bat. 10 urte zituen eta Sirian bizi zen, "Alepo" izeneko hiri batean. Han gerra zegoenez bere gurasoek Alepotik joan behar zutela esan zien bere anaia eta berari. Bere anaiak, Shalome izena zuen eta 4 urte zituen.

Yasmine eta Shalomek ez zuten ezer ulertzen, ez zekiten zergatik haien etxetik beste leku batera joan behar zuten, ez zekiten zer zen gerra... Zekiten gauza bakarra zen, lokatzez betetako bide batetik, hotzez eta eguraldi oso txarra lagun zutelarik, haiek bezalako jendez inguraturik, leku batetik bestera zabiltzatela. Azkenean, leku batera ailegatu ziren. Errefuxiatu bilgune bat zen, eta oso osos pobrea zen. Baina Yasmine eta Shalomerendako leku hori ez zen pobrea, ez zekitelako zer zen pobrea izatea, ez zutelako gu bizi garen bezalako leku bat ezagutu. Pobrea izatea normaltzasuna zen haientzat. Errefuxiatu bilgunearen ondoan etxe handi eta polit bat zegoen, aberats batzuen irudi zuen. Etxe horretan, Yasmineraren adineko neskatxa bat bizi zen eta Shia zuen izena. Shia batzuetan errefuxiatu bilgunera joaten zen, ea lagunik egiten zuen. Egun batean, Shiak Yasmine ezagutu zuen eta biak oso lagunak egin ziren. Egun horretatik Aurrera, beti biak elkarrekin jolasten ziren. Batzuetan Shiak bere jostailuak hartzen zituen eta Yasmine harrিতuta gelditzen zen, berak ez zekielako zer zen jostailu bat. Zorte txarrez egun batean Yasmine eta Shalomeraren aita hile gin ze oso eri zegoelako. Hilabete bat geroago haien ama hil zen, bere senarra hil zenetik ez zuelako ezer jaten.

Yasmine eta Shalom bakarrik zeudenez, Shiak bera eta bere gurasoekin bizitzera joateko esan zien, Yasmine eta Shalomek baietz esan zuten eta Shiaren etxera joan ziren. Shiaren etxea koadroz beteta zegoen eta gauza guztiak garbi-garbi eta disdiratsu zeuden. Yasmine eta Shalom harritura gelditu ziren ez zuten haiek hor zeudela sinisten. Aste batzuk geroago, Yasmine eta Shalome aberats batzuk bezala bizitzera ohituratu ziren. Urte batzuk pasatu ondoren Nafarroara joan ziren. Horretarako, abioian bidaiatu behar zuten, baina Yasmine eta Shalomeri beldur pixka bat ematen zien. Zeruan zeudela Yasminek ez zuen leihotik burua baztertzen, harritura zegoen abioietatik ikusten ziren paisaiekin. Shalome berriz, begiak itxita zituen, altuerak beldur asko ematen ziolako. Azkenean, Nafarroara iritsi ziren, eta ikusi zuten hango bizitza oso ezberdina zela. Dena verde-berdea zegoen, animalia asko zeuden...Han Euskara izeneko hizkuntza bat ikasi zuten eta asko gustatzen zitzaien Yasmine eta Shalomeri.

Urte asko pasata, Yasminek Siriara itzuli nahi zuen nola zegoen ikusteko. Horretarako liburu bat egitea erabaki zuen, liburua bere bizitzari buruzkoa zen eta "Aldaketa Zoragarri Bat" izena zuen. Denborarekin liburua famatua egin zen eta Yasminek diru asko irabazi zuenez Siriara joatea lortu zuen. Diru hori ez zen Siriara bidaiatzeko, hango familiei laguntzeko baizik. Hango familiak asko poztu ziren Yasminek egindako opariekin eta hortik aurrera oso pozik bizi ziren denak.